**ERREPORTAJEA** ITSAS-KAPITAIN ELGOIBARTARRAK · **GEHIGARRIA** EUSKALTEGIETAN ARIGERA
**KULTURA** MUSIKA EMANALDI DESBERDINAK SANTA ZEZILIA EGUNAREN BUELTAN

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko azaroaren 16a/IX. urtea/383. zkia



## ¡Ni naiz kapitain pilotu!

"BADITU ITSASOAK BERE GORABEHERAK" (Esaera zaharra)

# BASKO REN

C71 GARBIKETA MANTEN1MENDUA
AUTOEN ALOKA1RUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabibiak

TAILERRA



MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST1

GARBIKETA
4000.-

GARBIKETA AUTOZERBITZUA



MANTENIMENDU OROKORRA • OUO, BALAZTA
PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARBIKETA
700pta.

GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
500pta

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

itr-902 103 287


BIHAR, LARUNBATA, BILBORA

Autobusa arratsaldeko 4etan
PLAZA HANDIAN

**guztlek aske determinatzeko eskubidea dute,**
eta eskubide borren arabera, beren izaera politikoa aske determinatzen dute eta beren ekonomia, gizarte eta kultur garapena aske tortu nabi dute.

ESKUBIDE ZIBIL ETA PDLIIIK0011iAIIOAKTEKO ITUNA
1996K0 ABEVIDUAREN 16K0 KAZIO BATUEN BATZAR IMIDKORRA

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EUSKAL HERRIARENTZAT

batasu na

# NAZIO MANIFESTAIDIA

azaroaren 17an, arratsaldeko 5etan
AITA DONOSTIATIK



## Datu hotzak

Espero dut New York-eko istripua (edo dena delakoa) ez izatea sekula amaitzen ez diren te1esail merke horien ataletako bat. Espero dut asteleheneko berri txarraren ondoren, gauzak okerrera ez joatea, gerra batek okerrera egiterik badu, behinik behin. Sasoi latzak dira estatubatuarrentzat, baina adituek dioten bezala, estatubatuarrentzat ez ezik, gainerako guztiontzat ere izango dira garai gogorrak. Irailaren 1lko gertakariez geroztik hasi den krisiak komun zuloaren hondoraino bidaliko ei ditu ekonomia suspertzeko ahalegin guztiak. Baina antza denez, datu guztiak ez dira horren txarrak eta ezkorrak. Biztanleria Aktiboaren Inkesta egin berri dute eta estatistikek gezurrik esaten ez badute, enplegua hazi egin da 2001eko bigarrren hiruhdabetekoan. Adituek ez zuten horrelakorik espero, eta uztaila eta iraila bitartean aurreko hilabeteetan baino lanpostu gehiago sortu dira, bai eta iaz baino gehiago ere. Eta ez da hori guztia. Langabeziak behera egin du, nahiz eta ez horren nabarmen.

Sekula ez naiz datu eta estatistika zale izan, baina aizue, bizitzea egokitu zaigun sasoi honetan, ba al dago datu hotzez baino beste ezertaz fidatzerik?

Ainhoa Lodoso



## (Des)informazioa

Dorre bikiak jausi zirenetik eta EEBBek Afganistanei gerra deklaratu ziotenetik, egunero dugu berri horien des(informazioa). Telebistako kate desberdinetako teleberriak ikusten baditugu, bakoitzak, orokorrean, informazioa beraien ikuspuntutik ematen digu. Baina informazio honek telebista kateetako saio hauetara heldu baino lehen eduki dituen filtro desberdinek, gobernuen aldetik, gure (des)informazioa areagotzen dute. Beraz, azkenean, ez dakigu benetan zer gertatzen ari den, eta batzutan, gerrate hauek ere bukatzen direnean, bere garaian eman ez ziren irudiak eta datu berriak eskaintzen dizkiguten saioak agertzen dira. Baina zeinek jakin hauek ere manipulatuta egongo diren edo ez?

Azken finean, nahiz eta komunikazio eta teknologien aurrerapenen mendean bizi, hauek eskaintzen dizkiguten informazio zerbitzuak ez dira kalitatezkoak. Kalitate hau objetibotasunean datza, baina horrez gain, benetako informazioa behar da objetibotasun hori aplikatzeko.

Beraz, informazioa kontrolatzen duenak, gizartearen iritzia kontrola dezake neurri batean, eta holako gerrate bat gertatzen denean, are gehiago. Herri hauek gizartearekiko duten itxurak garrantzitsuagoak dira herriak duen (des)informazioa baino.

Jokin Martinez

Kexak ........................................ 5
MOtZ 110tZ ........................................ 10
gehigarria ........................................ 13
kiRolAk ........................................ 19
aGenda ........................................ 24

2001 -XI- 1 6

# Urruzunoren begi ezkutua



Jakina da ezkontza kontuetan San Kosme eta San Damian izan zirela garai haietako jakintsu sendoenetakoak. 1650. urtea baino bat lehenago, garai ilunabarretan, hitzartu zen zertan eta nola arituko ziren gizon andereak. Gaur ere arazo berdinak sortzen dira eta horiek konpondu beharrean gaude: mutil gazte eta nesken arteko harremanetan nola bideratu gure eta haien arteko gogoak ikusteko. Familia izan zen arraoizko garaipena baina egun garaitsu eta hots berri hauetan geure pentsamenean sartu gintezke eta luzatu gabe, gai hori aztertu. Egunetan, urteetan, bost mendeetan zehar sozietate grekoak ekarri gintuenean gogor jardun , hain zuzen ere, familian.

EEBBetan eta frantsez txapeldunak, agian, lagun afganiar musulmanak, bere andere, gizonak, seme-alabak eta hamasei urteko gazte gizajoak, judioek, kristauek.. badituzte arrazoiak Elgoibarren bertan ere ezagutzen eta nabaritzen ari den bizimodu berria ikusteko: "La familia mUltiple".

Joseba Esnaola

## 17AN BILBON EGONGO NAIZ

Gizon-emakumeak, ezker ahertzaleko militanteak Euskal Herrian bakea sortzeko eta bilatzeko bidean saiatzen ari gara.

Batasuna oso fin jokatzen ari da Espainiak Euskal Herriarekin duen gatazka politikoari irtenbide demokratiko bat emateko.

Maiatzaren 11n, ezker abertzaleko milaka boto emailek eman zioten botoa Juan Jose Ibarretxeri, Mayor Orejaren "españolismo" hutsa geldiarazteko modurik egokiena zelakoan.

100 egun pasa dira Ibarretxe lehendakari denetik eta ziur nago, berari, PP geldiarazteko, botoa eman ziotenak gaur egun damututa daudela. Ibarretxek "españolak" geldiaraztea lortu ez duelako eta berriro Estatuari eta Konstituzioari eskua eman diolako.

Orain dela 15 egun, BARRENen EGIren eskutitz bat agertu zen Autodeterminazio eskubidea eskatzen.

Azaroaren 17an, larunbatean, eskubideei hitza emateko aukera duzue, milaka Abertzaleekin batera Autodeterminazio eskubidearen alde oihu egiteko.

J.H.G
NAN 15353.885

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.corn/barren
ARGITARATZAILEA
Elgobarko Izarra

LAGUNEZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENPARIA Eli Aizpuru KAZETARIAK Itati Agirreazaldegi, Asier Orbea PUEUZIATEA Andoitz Agirregomezkorta MAKETATZAILEA Bea Ansola ADMINIISTRAWA Amaia Rodngez GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAR Ainboa Lodoso. Nestor Fuentes, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Jon Pell Uriguen. Lorea Perezde Albeniz, Jokin Martinez, Olga Unzilla. Montse Arregi, Juando Gorostiza, Jon Gurrulyaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T, AZALEKO ESAERA ZAHARRA GOTZGII Garatereri libururk INFRImATEGIA Gertu Keon. E. TfRADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA SS-1.03EI/92 ISSN 1139-1e55

ELGOIBARKOpRRA

*Elgnibarko Uchdak, Eusko Jaudaritzako Kuhura Sailak eta Forn Aldundiak diruz lagundutako aldKaria.*

zeg kutxa eiker

DA NO BAT IMOUINAS HERNAMIEMTA
GOITI GRUPQ RANORAZ
Lf,,TARTA

## KEXAK

**"Herri osoa txakur kakaz beteta dago.** Ez dago eskubiderik. Jabeena da errua. Udalak palak eta zorroak banatu zituen, baina dirudienez, jabeek txakurrak kaka eta txiza egitera ateratzen dituzte kalera. Usain txarra dago herri guztian. "Garate" ondoko kalearen egoera ere negargarria da" esandigu emakume batek.





• Emakume batek deitu digu duela urtebete **Leku-Ederren parkea handitzeko eskaerarekin,** Udalera karta bat idatzi zutela esanez: "la 300 sinadura bildu genituen. Alkateak, banan banan, guztioi erantzun zigun eta parkea Musika Eskola amaitu ondoren egingo zutela esan zigun. Orain, ordea, Musika Eskola egin ondoren, jende gehiago dago eta leku gutxiago. Ezinezkoa da hain parke txikian hainbeste jende egotea. **Noiz berrituko da parke hau, haurrak hazten zalzkigunean, akaso?**



• Duela gutxi, asteburuan, **zenbait banku, saskibaloiko saskia, etab. , hondatu** zituzten IMH-n. "Elgoibarrren berdegune gutxi daude eta hau da horietako bat. Jendea bertara paseatzera joaten da eta horrelako ikuskizunekin topo egitea ez da bidez.koa", esan digute IMH-tik.



# | elno guztien azpit°k OLATU G

***Garai batean kontrabandoan aritzen ziren itsasontziak Alizo1araino ailegatzen zire1a gogoratzen dute lekuko zaharrenek. Osterantzean, Kantauri Itsasoa 14 kilometro eskasera egon arren, itsasoarekin erlazio gutxi izan du E1goibarrek. Hala ere, badira zenbait e1goibartar lehorreko ziurtasuna laga eta itsasorafzera ausartu direnak. Are gehiago, batzuek itsasontzietako kapitain izatera iristea lortu dute. Elgoibarren lau kapitain aurkitu ditugu, eta birekin berba egitea lortu dugu bide honi buruzko azalpenak eta xehetasunak konta diezazkiguten.***

## LEHORREKO ITSASOIZONA

Jose Ignacio Laskurain, 53 urteko elgoibartarra, 15 urtez itsasoan ibili den itsas-kapitaina da, Bost ozeanoak nabigatu eta munduari makina bat itzuli eman dizkio. Bidaia bakar batean 4 urtaroak pasatzea ere tokatu zaio.

Elgoibarren jaioa izan arren, itsasoko mundua txikitatik bizi izan du, "aitona bermeotarra zen eta kapitaina den lehengusu bat ere badut familian. Aitonak Bilboko "rian" egiten zuen lan atoi-ontzi batean. Umetan aitonarekin pasatzen nituen oporrak eta "ria" goitik behera ezagutzen nuen". Portugaleteko Itsas Eskolan egin zituen kapitain ikasketak 1968. urtean. Karrera luzea dela aipatu digu, "kurtso normalez gain, derrigorrez 900 ordu egin behar dira itsasoan". Jose Ignaciok Bilboko konpainia batekin egin zituen praktikak, "Valentzian untziratu nintzen "Lekeitio" izeneko itsasontzian eta Durham-era (Hego Afrika) izan zen nire lehen bidaia. Aparheid-aren unerik garratzenak bertatik bertara ezagutu nituen. Sei hilabete eta gero, Bilboko "Naviera Aznar" konpainia ezagunera aldatu nintzen, eta bertan amaitu nituen praktikak. Batez ere Hego Amerikara joanez egin nuen lan". Itsas kapitain titulua eskuratu ondoren, praktikak egiten ibili zen lehen konpainian hasi zen lanean.

**"Nabigatzeak kultura eta jende ezberdina ezagutzeko aukera eman dit".**

**Juan Ignacio Laskurain**

MUNDUA EZAGUTZEKO AUKERA

Nabigatzeak kultura eta jende ezberdinak ezagutzeko aukera eman dio, "era guztietako jendearekin izan ditut esperientziak eta ez dut sekula arazorik izan. Herrialde berri batera joandakoan, bertako ohituretara moldatzen ikasi behar da. Asiarrek laga diote inpresiorik onena, "behartsuak izan arren, jende garbia, edukazio onekoak eta esker onekoak dira".

BITXIKERIAK

Hego Amerika, Ipar Amerika, Australia, Afrika, Asia... mundu osoa gurutzatu ostean, hainbat bitxikeria ditu kontatzeko. Unerik larriena Arabia Saudin pasa zuen, "Yeda hirian soldadu batek metralleta jarri zidan bularrean". Ez da arriskuan egon den une bakarra izan, Indonesia eta Filipinas bitartean zikloi batek harrapatu baitzuen, "Zikloiaren begiak ezustean harrapatu gintuen. Kalte handiak jasan arren, 30.000 tonako untzian gindoazelako atera ginen bizirik. Zikloi baten begia inoiz ikusi dudan gauzarik izugarrienetakoa da. 30 metrotako olatuak sortzen dira, ez da ezer ere ikusten eta haize bolada bortitzek 360 gradutatik jotzen dute",



# eta

# _,ZTIE I CAINE11/5..

## ITSASOIZONA LEHORREAN





Anton Arraiz Argoitia Elgoibarren bizi den 44 urteko ondarrutaira da. Marina merkanteko kapitain titulua eskuratu zuen Portugaleten eta hainbat urtetan ibili da itsasoan. Ondanutarra izanik bere erabakia ez zen batere arraroa izan, "etxean denok gara itsasgizonak, beste anaia bat ere kapitaina da, nahiz eta gaur egun guztiok gauden lehorrean 1anean". Antonek berak hiru urte daramatza itsas trafiko eta mugimenduen zuzendari gisa lanean. ltsasontziak batetik bestera mugitzeko aginduak eta baimenak ematea eta kargatze eta hustutze lanak kontrolatzea da bere lana.

**27 URTEREKIN KAPITAIN**

Ikasketak eta praktikak amaitu ondoren, 27 urte besterik ez zituela hasi zen kapitain lanetan. "20 urterekin hasi nintzen ikas]e moduan itsasora joaten, baina 27 urterekin 35.000 tonako eta 215 metroko luzerako untzia jarri zuten nire eskuetan. Erantzukizun handiko lana da. 10.000 milioi pezeta balio duen barkua eta tripulazio osoa zure ardurapean daude. Gauzak gehiago baloratzen ikasten da". Lehen bidaiak Tramp merkatuan egin zituen "Naviera Vizeaina" enpresarekin. "Grezian kargatu, zama Hego Afrikan hustu, eta gero, Asiara, berriz kargatzera".

**"Produktu kimikoak eta janaria eramaten nituen ontzian petroleo plataformara"**

**Anton Arraiz**

**PETROLEO-PLATAFOR1VIETAN**

Ontzian Iana amaitu ostean, "petroleo-plataformetan lan egitea izugarri gustatzen zait eta "Smits Lloyd" enpresa holandesak deitu zidan beraiekin lan egiteko. "Supply boats" edo hornikuntza ontziekin egiten nuen lan. Ontzi txikiagoak dira eta plataforman behar dituzten hodi, produktu kimiko eta langileentzako janaria eramatea zen nire lana, besteak beste", esan digu Antonek. "Zailtasun tekniko handia du, ontziarekin plataformaren hanka tartean sartu behar baita. Maniobrak ez dira errazak eta lanpostua egunero jartzen da jokoan. Gaur egun teknologiak aurrera egin du eta sensore eta helize berriei esker, errazagoa da". Petroleo-plataformak batetik bestera garraiatzen ere egin du lan. "92an petroleo-plataforma bat Aberdeenetik (Eskozia) Nueva Orleansera eraman genuen 61 egunetan".

## ITSASONTZIEN EZAUGARRIAK



**JOSE IGNACIO LASKURAINEK ETA ANTON ARRAIZEK "BUILCARRIERS" IZENEKO ITSAONTZIETAN EGIN IZAN DUTE LAN, BAINA NOLAKOAK DIRA ONTZI HAUEK?**

- **TAMAINUA:** 200 metroko eslora edo luzera, 20 metroko zobalera eta 30.000 tonako pisua duten itsosontziak eta haila handiagook ere izan ditulte beraien ardurapean.
- **ABIADURA:** 30.000 zoldiko indarra eto abiadura azkarrean 105 tona fuel edo erregai behar dituzten ontziak dira. 15 milia (1.852 metro) orduko diaduran joon daitezke, l.a Coruitatik New Yorkera joateko 12-13 egun behar dihrzte eta Australiaraino 50 egun inguru, eguraldiaren arabera.
- **TRIPULAZIOA:** Onlziorea arabera kea izaten da, baina 40 lagun inguruk osotzen dute itsasontzi haueiaka tripulazioa. Aginte zubion kapitaina, lehen, bigarren eto hirugarren ofiziola, radiotelegrafista ofiziola, eta makinetako nagusia eto ofiziolo egoten dira. Gainontzekoak maestronzakoak izmen dira, hau do, kontromaisua, sukaldoria, sukoldori loguntzodeak, elektrizistu eta azkenik marinelak.
- **ERABILPENA:** Mineralok eio oleak garraiatzen dituzten itsosontzi erraldoiak dira.

**Gazteak gero eta lehenago hasten direla edaten esan da aste honetan Alkohobk Gabeko Nazioarteko Egunean.**

# GAZTEOK GERO ETA GE HIAGO EDATEN AI DUZUE?



## JOSU MANTNA

**19 urte, kamarereoa**

Bai, 13 urtekin kriston mozkorrak harrapatzen ditxue. Etxeko pagak asko igo dialako izan leike hori. Neri tabernara 1.000 duroko biletiekin etortzen jataz gaztiak.

## SARA PEREc

**13 urte, ikaslea**

Bai, nik ez clot eraten, baina gure edadeko batzuek eraten dabe. Inportantiauak sentitzeko hasten da jendia gero eta lehenao eraten.





## EKAITZ GOMEZ

**19 urte, ikaslea**

Bai, gero eta lehenao hasten dia tabernetan sartzen, eta zapatuetan 13 urteko mutikuak lurrian botata ere ikusten dia. Jendiak juergarako gogua dakalako da hori.

## MAITANE SANTOS

**14 urte, ikaslea**

Bai, alkoholik gabe ere ondo pasau leike, baina gaztiok alkohola eraten dogu lotsa kentzeko eta haundixauan itxuria einateko.





## SONIA MENLIOZA

**15 urte, ikaslea**

Bai, 14 edo 15 urterekin hasten da jendea edaten. Harrotasunarengatik eta gustukoa dutelako edaten dute gazteek.

## JOANES RODRIGUEZ

**14 urte, ikaslea**

Bai, herrixan dauan anbientia ikusitxa, jendiak gero eta gehixao edaten dau. Beste ezer eitxerik ez badao eta jendiak eran eitxen badau, gaztiok ere eraten hasten gera.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %Yoi OEKO BEHERAPENA
gabiadi epp w"vteo atitalek tut(444 16 Iptevtel'l, A ETA 9,1
d(j ePt 0.7ota-vc'a
Tel: 943 74°t10f11

# noia ALDATU diren gauzak!



Erretratuan ikus dezakezuen tailerra, Madalan zegoen eta "Alkorta y Cla"-rena zen. 1936ko gerra aurretik hasi ziren lanean oihal tailer honetan. Herriko emakume mordoa pasa zen bertatik. Alpargatentzat oihal egiten zuten. Tela tailerra itxi ostean, burdinezko barilak egiten hasi ziren . 14 langile egon ziren "trefilazio" lanetan. Alanbre lodia ekartzen zieten eta beraiek esandako neurrira egiten zituzten. Gero, Bartzelona, Valentzia, Sevilla edo Gipuzkoara bidaltzen zituzten, enkarguen arabera. Duela 15 urte, 1989 urte inguruan, itxi zen fabrika.



Itxi ostean, autoentzat aparkalekuak egon ziren. Duela hiru urte bota zuten aipatutako tailerra. Gaur egun, bere lekuan etxeak egin dituzte eta, amaitu berriak dira, gainera. Oraindik etxe bloke batzuk amaitu gabe daude eta komertziorako lokalik ere ez dago, laster negozioren bat edo beste zabalduko bada ere. Ikus daitekeen bezala, asko aldatu da lekua: lehenengo erretratuan, tailerraren alboan ikusten den ortuaren lekuan, adibidez, anbulatorioa dago gaur egun.

Juanito Gorostiza

# asteko ERREZETA



\494,02_

## TXIPIROIAK

### OSAGAIAK

Txipiroiak (kilo bat)
2 tipula
Piper berde bat
Berkatz atal bat
Tomate frijitu goilarakada bat,
Irin goilarakada bat
Baso bete ur
4 tinta poltsatxo

### PRESTAKETA

Txipiroiak garbitu eta bete. Gatza bota. Tipula eta piperrak juliana erara moztu, hau da, txiki-txiki eginda, eta su motelean eduki. Txipiroiak bertara bota eta bigundutakoan, aparte ipini. Ondoren, tintak gehitu behar zaizkio, urarekin nahastuta, noski. Ordu laurden batean laga, irakin egin dezaten. Irina nahastu. Jarraian, berdura eta tintea turmixean pasatu lehendabizi, eta iragazki edo koladore batean, ondoren.

Saltsa honi txipiroiak gehitu eta gatz puntu egokia izan arte, gatza gehitu.

Gorbea
J ATETXEA
Santa Ana, 10
Tel. 943 74 05 80

# Asteazkenean askatu zuten Mikel Alberdi preso elgoibartarra

## Guztira 17 urte eman ditu Espainiako hainbat kartzelatan

Mikel Alberdi preso elgoibartarra pasa den asteazkenean, hilaren 14an, askatu zuten. 17 urte egin ditu guztira Estatu espainiarreko kartzela ezberdinetan. 1984ko azaroaren 27an atxilotu zuten Ifiaki Jaio eta Maxio Iriondorekin batera eta guztiek zigorraren hiru laurdenak beteta izan arren Alberdi baino ez dute askatu orain.

Santanderko El Dueso kartzelara bila joan ostean, asteazkenean arratsaldeko 19:30ean ongietorria egin zioten Plaza Handian. Ikurrin artean plazara sartu eta lagunak agurtu zituen Alberdik. Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformako kide batek Mikeli buruzko hainbat hitz esan eta gero lore sortak eman zizkioten berari eta bere emazte Arrateri. Bere omenez aurreskua dantzatu eta jarraian, Mikelek berak, herritarrei hitz batzuk eskaini zizkien ipuin modura. Dena den ekitaldian, omenaldia datorren azaroaren 24an, 12:30ean egingo dela gogorarazi zuten. Mikeli ongietorria egiteaz gain, Josu Larizen atxiloketa salatuz, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan asteazken iluntzean.



*Asteazkenean ongietorria egin ostean, azaroaren 24an omenaldia jasoko du Alberdik.*

**Ekitaldiak azaroan**

Bestalde, azaroan zehar euskal presoen aldeko hainbat ekitaldi izango dira Elgoibarren. Besteak beste, sinadura bilketa, presoen egoerari eta torturei buruzko hitzaldiak, manifestazioa, omenaldia eta herri bazkaria antolatu dituzte. Ekintza hauekin herriko presoen egoera salatu eta beraien herriratzea eskatu nahi dute.

# Leku Eder aldameneko hainbat edifizio botako dituzte etxeak eraikitzeko

## Banco Guipuzcoanotik Bernardo Ezenarrora eskailera mekanikoak egingo dituzte

Plaza Txikiko eskolen atzeko aldean dauden hainbat eraikin bota egingo dituzte, bertan etxe berriak eraikitzeko. Muno S.A. da promotorea eta herriko erdigunearen itxura aldatuta ikusiko dugu proiektu hau amaitzean. San Frantzisko etxea, Mendikute etxea, Mujika fundizioa eta Mujika etxea dira botako dituzten eraikuntzak.



*Mujika fundizioa eta inguruko hainbat etxe botatzeko proiektua martxan dago.*

**Ingurua konpondu**

Hauen lekuan etxe berriak eraikitzeaz gain, ingurua ere aldatzeko asmoa dutela adierazi digute Udaletik. "Lanak aprobetxatuz, Banco Guipuzcoanotik Bernardo Ezenarro kalera bitartean eskailera mekanikoak egiteko asmoa daukagu, baina ez etxeak eraiki ondoren, lebenballehen baizik. Bestalde, trenbide kalean errepideak garrantzia hartzea nahi dugu, errepide nazionalaren ordezko izatea. Horretarako, bidea konponduko dugu, baita estazio aldameneko aparkalekua egokitu ere", esan digu alkateak.

Eraikuntza zaharrak botatzeko proiektua martxan dagoenez, ez da denbora asko pasako Leku Eder ingurua itxura aldatuta ikusteko.

## Altzolako Josu Lariz errefuxiatua atxilotu eta espetxeratu dute Uruguain

Joan den astelehenean, hilaren 12an, atxilotu zuten Uruguain, Montevideoko bere etxean, Josu Lariz Iriondo errefuxiatu altzolarra.1992an atxilotu zuten hainbat ustezko ETAko kiderekin batera Uruguain. Espainiak, guztien estradizioa eskatu arren, Uruguaiko Gobenmak hirurena bakarrik onartu zuen. Lariz, urtebetez espetxean egon ostean, 1993an aske utzi zuten.




*Josu Larizek 10 urte pasa daramatza Uruguain errefuxiatua*

Epaileak delinkuente elkarte bateko laguntzailea izatea leporatu dio. Uruguaiko Barne ministroak "El observador" egunkariari adierazi zionez, "badira 10 urte Uruguain bizi direla eta oraindik ez da frogatu inolako delituzko ekintzetan parte hartu dutenik". Lariz Montevideoko espetxe zentralean kartzelaratzeko agindua eman zuen astearte goizaldean epaileak.

## Udalak ez ditu uraren zergak igoko 2002an

Udalak 2002ko zergak igoko dituen berria eman genizuen orain aste batzuk. Hala ere, zerga denetan ez dira igoerak egingo , ura bere horretan mantenduko baita. Ur kontsorzioak uraren prezioa igotzeko asmoa azaldu du, baina Elgoibarko Udalak kopuruak orain arte bezala mantenduko ditu. "Sarritan aurpegiratu digute zergak mekanikoki igotzen ditugula, baina jarrera honekin herritarrenganako sentsibilitatea badugula adierazi nahi genuke", esan zuen Gillermo Garate Alkateak. Bestalde urak bere horretan mantentzeko arrazoia erabaki politikoa izan zela adierazi zuen.

## 200 kilo gaztaina erre zituzten galiziarrek "Festa do Magosto" jaian

Gaztaina erre usainak hartu zuen joan den igandean Urasandi auzoa. Izan ere, Galiza Etxeak antolatuta "Festa do Magosto" jaia ospatu zuten. Galiziatik ekarritako 200 kilo gaztaina danbolinean erre ostean, Errioxako ardoarekin banatu zituzten Galiza Etxekoek herritarren artean. Orain dela 15 urte inguru hasi ziren Galizian mendetako historia duen jai hau Elgoibarren ospatzen. Jaia aitzakiatzat hartuta, Galiza Etxeko zuzendaritza berria aurkeztu zuten. Gumersindo Vila presidentearekin batera honako hauek osatuko dute taldea: Celestino Robira, Enrique Ajuriaguerra, Felix Alvarez, Ovidio Campello, Jose Periaranda, Ramon Rodriguez eta Martin Menorrek.






## Karakaten miradorea eta brontzezko mapa panorandkoa jarriko dituzte

Karakatera joateko ohitura dutenek berrikuntza bat aurkituko dute bertan hemendik aste batzuetara. Izan ere, mahai panoramiko bat ipiniko dute Elgoibar eta Soraluze arteko mugan. Erliebean egindako brontzezko mapa honetan eskualdeko herriak, mendi garrantzitsuenak eta baserri auzoak agertuko dira markatuta. Elgoibarko eta Soraluzeko Udalek eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak ordainduko dute Debako Arte Eskolan egiten ari diren lan hau. Miradorearen inguruan mahaiak eta bankuak jartzeko asmoa ere aztertu zuten, baina Debegesatik adierazi digutenez, "oraindik proiektuak ez du aurrera egingo, gailurraren ingurua babestea erabaki baitugu".

# Laster dator EUROA!

## 2002ko urtarrHaren 1 etik aurrera egin al daitezke ordainketak pezetekin?

200.21ko itutaxtlaten 2$za bikartean Lluxu iwzglarekion ilutten nolgo zirikdazictan. Epo thwetati, mr.111,e011 rzetekiin leire Lebra ohail iizanoo Aira. Dem (4101a, Ittata lawti ilolee iholo Ana glImak if' zetein lodez mclzik ji.4,satiu 4ityo

## Nola aldatuko dira bankuetako kontuak eurotara?

**211010ko** intilme Man hasii tkaphke.tako looktkak colottaffl Bfflrtl !lezenook ibAsiteildatr* adierazi tzeau.. 20921ko luirlassillArAu Astrrera, eurrotara alldatu lab.e datuidext kontuak alldatuko dka, ifitopotaxako., ,olidaketta .pgiteko egusean toutuan sokkati finkataako Inike-Wa 15,ta zWitateikolk Ibifflittzeko ezarlitabariattlk aphkaluko

## Trantsizio-aldian ordainketak eurotan nahiz pezetatan egin daitezke?

11101.. lezetattau Izendatutakoak pezetatan erdaladuko dira eta eurotan izoadatiuttoloak, ~Man.; ordainketak ibeate monelarekleglea adosten ez bada, :behinizat. fankatatako tasa eta tikib'dtzeko arauak aplikatuko Zordulat duen monetan orUnt7eko atikew iizango du. Banta guedenez, beste moopetan duen zorraren zenbatekoa zaindint beitatko du.

## Fakturak bi monetetan batera egin al daitezke?

Trantsizio-aldian, faktura osoak pezetatan agertu beharko du, nahiz eta eurotara aldatu ahal izango den; baina beti ere, zein unitatetan izendatzen den zehaztu beharko da, horrela akatsak eragotzi ahal lzateko. Dena dela, ez da behaffezkoa izango fakturan bi diruak azaltzea. Eurotan egindako fakturek balio osoa izango dute, baina hori bai, faktnra zein unitatetan egiten den argi eta garbi adierazi beharko da, nahasketarik egon ez dadin.

## EUROArEn zazpi bilEtEak





Rer ild

1

5001q2 4t47

## BIRIBILKETA

PIATEBIT1H EUROETARA

Pezeta kopurua euroaren balioaz zatitu eta eragiketan ateratzen den hirugarren hamarrekoa 5 baino handiagoa bada, bigarren harnarrekoari zentimo bat gehituko zaio, bestela berdin mantenduko da.

15118OLTATli1

Euro kopurua pezetetan duen balioarengatik biderkatu ondoren lehenengo hamarrekoa 5etik gorakoa bada, pezeta bat gehituko zaio, eta 5etik beherakoa bada, berriz, hamarrekoak ez dira kontuan hartuko

# euskaltegi et.

Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAR1 eskainitako gehigarria


## "Aitonak animatu ninduen euskara ikastera, eta lehen matrikula berak ordainduko zidala esan zidan"

**PILI KRUZ**

***Pili Kruz 34 urteko elgoibarlarra da. Familia erdaldunekoa da, gurasoak Cacereskoak baitira: ama Aliseda herrikoa eta aita, berriz, Trujillokoa. Ez ditu gogoratzen euskara ikasten hasi zeneko arrazoiak, baina ez omen da inoiz damutu.***

DIREN ERD

**Nola gogoratzen dituzu euskaltegian ibili zineneko urteak?**
Gustura egoten nintzen euskara ikasten. Euskaltegian hasi nintzeneko oso oroitzapen politak ditut, lehen urratsetakoak batez ere. Gero, ikasten joan nintzen heinean, eta hitz egiteko gaitasuna nuela konturatu nintzenean, horrek aurrera segitzeko gogoa eman zidan.

**Euskara erabiltzen al duzu?**
liobarekin eta senarraren familiakoekin hitz egiten dut euskaraz. Senarra eta biok saiatzen gara gure artean ere euskaraz hitz egiten, ahaleginak egiten ditugu, behintzat. Gainontzeko senitartekoekin, erdaraz hitz egi ten dut.



**Lanerako euskara beharrezkoa al zu?**
Erizain laguntzailea naiz eta lanerako behar beharrezkoa ez da, baina euskara jakitea oso lagungarria da euskaldunekin mintzatzeko eta elkar ulertzeko.

U.O

**Norbaitek lagundu al dizu euskara ikasteko pausoa ematen?**
Bai, aitonak animatu ninduen eta lehen matrikula berak ordainduko zidala ere esan zidan.

## MAISU MAISTREN *luma*



**EUSKALDUN ARRAROAK**

Erdaldunak (euskara ez dakienak) euskara ikasteko egiten duen ahalegina eta esfortzua, zoritxarrez, ez dakigu denok. Gure inguruan denok daukagu edo ezagutzen dugu norbait euskara ikasten aritu dena edo diharduena.

Lehenbizi ulermena dator eta, berarekin lehen urratsak. Gero elkarrizketa motzak aurreratzen segitzeko, zirrara eta motibazioa Azkenean, jardun luzean gai eta egoera desberdinetan aritzeko gauza direlarik. Eta prest daudenean euren jatorrizko ingurune hurbiletan murgiltzeko, hots, lagunak, kuadrila, familiakoak,... Hara erantzuna: "Arraroa egiten zait zurekin euskaraz hitz egitea, erdaraz hitz egingo dugu".

Nonbait, azken ikasgaia ikastea falta da. Euskaltegian ikasi ezin dena.

**ALFONSO EUGI**
**AEK euskaltegiko irakaslea**

# ge oz



## Azucena

# HAMABREKO TXIKIAN

**Zergatik ari zara euskara ikasten?**
Kalean esaten dutena ulertu nahi dudalako eta, ikastolan seme bat daukadanez, berari ulertu ahal izateko.

**Zer behar da euskara ikasteko?**
Pazientzia eta gogoa.

**Elgoibarren beharrezkoa al da euskara jakitea?**
Ez, jakin gabe ere berdin bizi daiteke.

**Kalean euskaraz hitz egiten al duzu?**
Ez, ulertu ulertzen dut baina oraindik ez dakit hitz egiteko adina.

**Dakienak nola hitz egin behar dio ikasten ari denari?**
Gauzak erraztuz eta gaizki esandakoak, zuzenduz.

**Nolla animatuko zenuke jendea euskara ikastera?**
"Ikasteak ez dio inori kalterik egiten", esango nioke. Beti dago ondo zerbait berria ikastea.

**Euskaltegiak desagertuko balira...**
Guretzat euskara ikastea ezinezkoa izango litzateke. Jendeak ez du besteei erakusten denborarik galtzen.

**...guztiok euskaraz hitz egingo genuke.**
Dakitenek ahalegina egingo balute.

**Egia al da euskara ikastea zaila dela?**
Oso zaila.

**Zer da euskaraz ikasteko zailena egiten zaizuna?**
Dena da zaila, aditzak, esaldiak...



Ikasleak, ezkerretik eskumara: Montse, Mariaje, luis
Rocio, Marinalda, Azucena, Montaña, Ana Isabel, A
kaslea) eta Isabel.

# IRITZIAK

**"Euskara ez da galduko ez dakitenek ikasten**

## KONFORME AI ZAUDE J. ARTZEREN



MAR IAJ E
"Bai, ados nago. Gu, adibidez, euskara ikasten ari gara, baina gero, kalean ez dugu hitz egiten. Gehiago saiatu beharko genuke".

## AURREKO LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | 8 | | | | |
| 1 | T | R | E | B | | | O | | | | |
| 2 | | A | | | K | O | R | R | I | | |
| 3 | | | O | | K | O | R | R | I | | |
| 4 | | | | P | | P | E | R | | | |
| 5 | | | | | A | R | A | B | IA | | |
| 6 | | | | | | E | G | U | E | N | A |
| 7 | | | | | | | A | R | G | A | |

EZKERRETIK ESKUMARA
1. Araban egon arren, Burgos da.
2. Gipuzkoako mendirik altuena.
3. *"Euskal herrian Euskaraz"abesten* duen euskal taldea.
4. Gaur ez naiz eskolara joan: egin dut.
5. Euskal Herriko probintzia bat.
6. Elgoibarren osteguna.
7. Irufietik pasatzen den ibaia.

GOITIK BEHERA
8. Roncesvalles euskaraz.



## IRABAZLEA
**MIKEL ORIBE da.**

# elo



Rosa Mari,
rizane (ira-

## GELRIKO F1TXR

- **Euskattegia**:
  Udal Euskoltegio
- **irakosieu:**
  Agurtz.orse Epelde
- **Urratsal**
  Behe urratso
- **Ikosle kopurua:**
  1 2 ernakurne
- **Batazbesteko adina:**
  30 urte
- **Asteko klase orduak:**
  8 ordu
- **Bitxikeriak**
  Brasildor bat clogo kloseen. Morinalda du izeno. Erru ino skir bat ere egon zen ba logo egin zuen.

## iritzi

**▶dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik"**

## HONEKIN?



**ROCIO**
**"Bai,** geuregandik hasita, ohiturak aldatu behar dau-gu eta kalean ere, hitz egi-ten hasi, zuzenean erdera-ra jo gabe".

## DEKLINABIDEA

**NOR da gelako berritsuena?**
Isabel.

**NORK hitz egiten du ondoen euskaraz?**
Trinik eta Azucenak.

**NORI oparituko zeniokete hiztegi bat?**

**NOREN azterketa kopiatuko zenukete?**
Ez daukagu kopiatu beharrik, gu-ren ez baitaukagu azterketarik.

**NOREK1N hitz egiten duzue gehien euskaraz?**
Montserekin.

**NORENGANA joaten zarete zerbait ulertzen ez duzuenean?**
Agurtzanerengana, irakaslea izanik...

**NORENGATIK ari zarete euskara ikasten?**
Guregatik, baina badago alaba-rengatik ikasten ari denik ere. Mon-tse, adibidez, alabatxoarekin eus-karaz hitz egin ahal izateko dabil euskaltegian.

**NORA joango zinatekete gelako guztiok batera?**
Afaltzera.

## "I KUS I ETA I KAS I" LEH IAKETA

tehiaketan parte hartu nahi baduzu, gurutzegrama ondo egitea besteri ez .au ozu. Horrela egin ostean,. moztu papera marra etenetik eta bidali honako helbidera abenduaren 21a baino lehen. Bi pertsonarenizat aforia nabaz dezakezu, Toletxe tabernan. Bidali emnizunak helbide honetara: Arigera proiektuo. Ubitarte 4. behea 20870 Elgoibar, arigera@infonegocio.com. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezue.




**EZKERRETIK ESKUMARA**
1. Nola esaten da Elgoibarren *zaigu?*
2. Santo Tomas egunean zer jateko ohitura dago?
3. Nora igotzen da Bilboko funikularra?
4. Euskal Herritik gertuen dagoen zentral nuklearra.
5. Uztailaren 25ean non egiten da erromeria Elgoibarren.
6. Nola esaten da euskaraz "tomar el pelo". ( jo)

**GOITIK BEHERA**
7. Ze idazle Farnatuk dauzka Jose Irazu ixen-abizenak?

**Parte** hartzen cluzuenon artean ozketatuko dugut
**2 IAGUNENTZAKO AFARIA**

# euskaltegietan
## oarrpon

## ■ NOTIZIAK

### 11111*IÑAKI RAIGOSO IKASLEA OPARIAREKIN ETORRI ZAIGU KUBAT1K




Udal Euskaltegiko EGAko eskolan dagoen Iñaki Raigoso Kuban izan da duela gutxi, urriaren 6an, alegia. Bidaian euskaltegiko lagunekin ere gogoratu dela adierazteko, oparia ekarri die gelakoei. Denon artean "Guayabita del Pinar" likorea probatzeko aukera izan dute. Esan digutenez, "oso goxoa" omen zegoen. Hori bai, kontuz edateko modukoa, 30 grado ditueta.

### AEK EGUNA ZESTOAN




"AEK...eta murgildu" leloari jarraituz, urriaren 28an ospatu zen AEK Egunaren festa Zestoan. Euskarak aurrerapauso garrantzitsuak eman dituela ukaezina bada ere, oraindik euskararen herrian euskaldunen eskubideak urratuak direla-eta, horren aurrean AEK-k euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuen. Euskal Herri guztiko milaka euskaltzalek hartu zuen parte egun osoan jai giro eder eta euskaldunean egin zen festan.

## DURANGOKO
### EUSKAL LIBURU ETA DfSKO AZOKA

Euskal Herriko liburu eta disko azokarik garrantzitsuena da Durangoko azoka. 1965ean antolatu zuten lehen aldiz Gerediaga Elkartekoek eta 1966an izan ezik, urtero-urtero antolatu izan da.



Abenduaren 5ean hasi eta 9ra arte, zubia aprobetxatuz, euskal literatura eta musika zaleek izango dute bai gozatzeko aukera. Aurtengo Durangoko azokaren beste zenbait datu:

**Non:** Durangoko Landakaoko karpapean. Datorren urtean, karpa lekuz aldatzeko asmoa dago eta 2003rako eraikin berria izango du azokak.

**Stand kopurua:** 245 stand zabalduko dira. 38 argitafetxe komertzial, 22 ku!tur talde, 14 aldizkari, 8 erakunde, 6 banatzaile, 2 aurrezki kutxa, 2 egunkari eta 3 unibertsitate.

**Liburuak:** 774 titulu literario berri.
**Diskoak:** 76 disko berri.

*Azokari buruzko informazioa eta erosteko aukera: www.durangokoazoka.com web gunean daukazue.*

## BERBA LAGUNA EGITASMOA

BERBA LAGUNA egitasmoa martxan jarri ahal izateko ZAHARRAK BERRI kanpainan izena eman zutenekin bilera egin zen azaroaren 7an. BERBA LAGUNA egitasmoa euskaldun zaharrak euskaldun berriekin euskaraz hitz egiteko asmoarekin sortu da. Bileran, euskara ikasleek zer nahi duten azaldu zuten



eta ondoren, egitasmoan parte hartzeko agertu zirenek, zertarako prest dauden esan zuten. Orain, batzuen eta besteen ordutegiekin eta nahiekin bat egitea besterik ez da falta. Horren arabera, ekitaldi desberdinak egin ahal izango dira: kafea hartzera atera, mendira irteerak antolatu...

## arigera Frp», TXOKOA

# EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
Egunero
DonostiamtARA 5.15 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dtrd

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Billx 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
isiegutietan 8.00etan ha.siko clu'3

# Eusko Tren

MENDARO-ELGOLBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50. . 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08 25 1025... 21.25

jaiegunetan
Elgoibar 0825 09.25 10.25, 21.25

## PES.AUTOBUSAK

LARUNBAT GAUA

EIBAR-ONDARII0A

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00 50 | 0250 | 04.50 | 06.60 |
| Mulriku | 00.55 | 02,55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 0330 | 05.30 |
| hlutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko infonnazio bulegora.* TeL 902 101 210.

# Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 17 | Etxeberria* (Errosario kalean} | Fernandez |
| 18 | Etxeberria* (Errosario kalean) | Fernandez |
| 19 | Yudego | Yudego |
| 20 | Zabaleta | Zabaleta |
| 21 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 22 | Escala | Escala |
| 23 | Bidasolo | Bidasolo |
| 24 | Escala | Escala |

**FARMAZIAK**

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze,
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Ka!ebarren, 9 Soraluze,
Tel: 943 75 13 84
seguercliko 2ok arte

**OKINDEGIA**
18 igandea **Doña Mercedes**

# INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

